BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

2253

AGINDUA, 2012ko apirilaren 23koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena. Honen bidez, Sociedad Cooperativa Ikastola Andra Mari kooperatiba sozietateari herri onurako izaera ematen zaio.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2011ko azaroaren 30ean, Ana maría Gallastegi Abendibar Andreak Sociedad Cooperativa Ikastola Andra Mari elkartearen izen eta ordezkaritzan, aipatutako entitateari herri onurako izaera ematea eskatu zuen. Eskaerarekin bat, herri onurako kooperatiba-sozietateei dagozkien prozeduren eta betekizunen araudia onartzen duen 64/1999 Dekretuaren 7. artikuluan zehazten diren betekizunak betetzeko galdatutako dokumentazioa ere aurkeztu zuen.

Bigarrena.– 2011ko abenduaren 12ko idatzi baten bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari txosten bat eskatu zitzaion, kooperatibari herri onura izaera ematea egokitzat jotzen zuenentz irizpena eman zezan, 64/1999 Dekretuaren 9. artikuluak xedatutakoa betez. Eskaera horri erantzunez, 2012ko urtarrilaren 11n, Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzaren Aholkularitzaren Juridikoaren Arduraduna Jaunaren idatzia jaso zen, eskaerari baiezko irizpena emanez.

Hirugarrena.– 2012ko urtarrilaren 23ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren bitartez, espedientea jendaurrean jarri zen, horrela, interesatuta zegoen edonork espedientea aztertu ahal zezan eta alegazioak jar zitzan, hogei eguneko epean. Epe horren barruan, ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Aurreko egiteei ezargarri zaizkie ondorengo

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Euskadiko Kooperatiben Legeak, 4/1993 Legeak, bere 137.2 artikuluan dio, Euskadiren onuraren sustapenari laguntzen dioten kooperatibak herri onura izaera emango diela Eusko Jaurlaritzak, erreglamendu bidez ezarritako prozedura, araubidea eta betekizunen arabera.

Bigarrena.– Artikulu hori garatuz, 64/1999 Dekretua, otsailaren 2koa, onartu zen, herri onurako kooperatiba-sozietateei dagozkien prozedura eta betekizunen araudia onartzeko dena.

Hirugarrena.– Herri onurako izaera emateko 64/1999 Dekretuaren 7. eta hurrengo artikuluetan ezarritako izapideak bete dira.

Laugarrena.– 64/1999 Dekretuak, herri onurako izaera lortzeko bere 5. artikuluan ezartzen dituen betekizunak zuzen bete direla baieztatu da.

Bosgarrena.– 64/1999 Dekretuaren 11. artikuluaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburua da kooperatiba sozietate bati herri onurako izaera emateko eskuduna.

Hori guztia dela eta, aipatutako arauak eta ezargarri diren gainontzeko arau orokorrak ikusirik

ERABAKTZEN DUT:

Lehenengoa.– Sociedad Cooperativa Ikastola Andra Mari elkarteari herri onurako izaera ematea.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen duenez, interesdunek berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari. Berraztertzeko errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 116. eta 117. artikuluak). Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako epea bi hilabetekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikuluan ezarritakoa betez (29/1998 Legeak Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen du).

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 23a.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.